

aren stekko

Sexologoaren iritziz, beharrezkoa da biharamuneko pilularen kontsumoa kontrolatzea: «Guk, hasiera batean, 21 pilulako tableta eman eta horietatik zortzi hartzeko esaten genien. Kontua da gainerako pilulak gorde egiten zituztela eta beste noizbait erabili. Gure ustez, ez da ona abusatzea, eta kontrolatu egin behar da bere erabilera». Hala ere, pilulak eskuratzeko erraztasunak edukitzea ez zaio gaizki iruditzen, hots, farmazietan eta errezetarik gabe saltzea, baina horrekin batera heziketa sexuala landu behar dela dio Luis Elberdinek, «pilula gehiegi ez hartzeko eta biharamuneko antisorgailu gisa ez erabiltzeko». Izan ere, eta Askabiden zehaztu digute-



Luis Elberdin ASKABIDE

ANDER GILLENIA

nez, biharamuneko pilula arazo jakin bati irtenbidea emateko modua da, ez da sexu harremanak eduki ondoren hartzeko antisorgaila. Beren ustez, helburua halako pilulak hartu beharrik ez izatea da, hau da, horretara daramaten egoerak saihestea. Gauzak horrela, pilula hori eman eta ordu erdiko kontsulta egiteagatik 3.000 pezeta (120 libera) kobratzen dute Askabiden. Eta garrantzi handia ematen diote kontsultari, arazo jakin bat konpontzearekin batera, esperientziatik abiatuta, sexu harreman ziurrak eta oparoak nola eduki daitezkeen azaltzen baitiete bertan.

Gogoan izan behar da familia plangintzako egoitza gehienak itxi egin dituztela, eta, ondorioz, bai biharamuneko pilula bai informazio sexuala lortzeko bideak murriztu egin dira. Hala, zentro pribatueta mugatu da informazio sexuala, eta farmazietara, berriz, pilularen salmenta. Hala ere, larrialdietako zerbitzuetan ere eskura daitekeela azaldu digu Elberdinek, «baina ez dute beti ematen».

Luis Elberdinek argi eta garbi esan digu nahigabeko haurdunaldiak gero ere gertatuko direla. «Eta ondorioz, abortuak etorkizunean ere izango dira, kotxe istripuak bezala. Arrisku horien gaineko informazio ugari eduki arren, beti gertatuko diren gauzak izango baitira».

Mila Idiakez EGIZAN

«Arazoa ez da emakumea, baizik eta gizarte honek ez digula eskaintzen behar bezalako heziketa. Horregatik da beharrezko bitartekoa biharamuneko pilula»

«Biharamuneko pilula arazo jakin bati irtenbidea emateko modua da, ez da sexu harremanak eduki ondoren hartzeko antisorgaila. Helburua halako pilulak hartu beharrik ez izatea da, hau da, horretara daramaten egoerak saihestea»

«Emakumeok gure gorputzaren kontrola eduki behar dugu»

Egizaneko kide Mila Idiakezek esan digunez, aipatu pilula merkaturatzearen alde daude, «emakumeak bere gorputza kontrolatu behar duelako eta, heziketa sexualaren falta dagoenez, beharrezko bitartekoa delako». Hori dela eta, biharamuneko pilula inolako errezetarik gabe eskuratzeko aukera Euskal Herriko emakume guztiek eduki behar dutela uste du Egizaneko kideak.

Hainbat jende pilula hori merkaturatzearen aurka azaldu zela gaineratu digu, biharamuneko pilula antisorgailu gisa erabiltzeko zegoen arriskua zela eta: «Baina guk pentsatzen dugu heziketa sexualik ez dagoelako gertatuko dela hori, eta, gainera, hezitzeke zeuden zentroak kendu egin dituzte... Beraz, arazoa ez da emakumea, baizik eta gizarte honek ez digula eskaintzen behar bezalako heziketa».

Bestalde, eta askatasun sexualaren baitan, sexualitatea ugalketa bide izateaz gainera gozatzeko eta bizitzeko dela aldarrikatzen du Egizanek. Beraz, ez zaie bidezkoa iruditzen nahigabeko amatasuna onartu beharra. ■



EDURNE KOCH